

COVID-19a dala-eta hartutako neurriak lan proiektuak eten deutzazala azaldu dau Aneuria rap kantariak

Ibilbide luzea dauka denporaldi batez Igorren bizi izan zan Ane San Miguel "Aneuria" rap kantariak. Bere azkenenengo proiektua, Aima Bermeoko artistegaz batera Emeki emeki emeek emana da. Herrietako jai barik eta kultura ikuskizun guztiak bertan behera geratu diran honetan, etorkizuna ilun ikusten dau artisteak. **12. orrialdea**



Xake lehiaketak antolatu dira itxialdian plataformen bidez

11. orrialdea

Ikerketearen garrantzia

Oinarrizko ikerketearen balioa aldarrikatzen dau Joxerra Aihartza Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Zoologiako irakasleak.

COVID-19ak irakasgai bat emoten dauala ikerketeari buruz dino, oinarrizko ikerketea funtsezkoa dala herri batek etorkizuna izan dagian. Ingurumenaz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta tresna gehiago dago etorkizunean gertatu daitezkean arazoak aurreikusi eta aurre egiteko. COVID-19aren kasuan, animaliak dituen birusak, bizimodua, ohiturak... jakin barik gatzagoa izango zan gaixotasun hau agertu zanean zer zan be jakitea. Eta oindino gatzagoa konponbiderik topatzea. Dana dala, ondorioak konponduten ibiltea baino, jatorrizko arazoak ekiditea hobe dala uste dau.

Joxerra Aihartza saguzarraren ekologiaren inguruan mundu mailako aditua da eta COVID-19a seguruenik inoz saguzarren batetik sortutako birus baten ondorengoa izan daitekela dino. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Ikasle gitxi itzuli da ikasgeletara

Konfinamentua arintzen doan arren, Arratian ez da apenas ikaslerik itzuli ikasgeletara ikasturtea amaituteko, DBH 4 eta Lanbide Heziketan errefortzua behar daben ikasleak baino ez. Zahar etxeetan barriz, bisitak jasoten hasi dira han bizi diran edadekoak.

Etendako zerbitzu batzuk ipini dira martxan edo

ipiniko dira bagilean, udal liburutegiak, barbarako. Eta udalak, merkataritza eta ostalaritza suspertzeko eta alarma egoerak kaltetutakoai lagunduteko zuzeneko zein zeharreko diru laguntzak onartu dira udaletan. Eta aire zabaleko lehenengo kultura eta kirol ekintzak be antolatu dira. **5. orrialdea**

ARRATIA

Izaskun Martin erizainari alkarrizketea

Areatza, Artea eta Igorren egiten dau behar normalean Izaskun Martin erizainak, baina apirilaren atzenengo aste bietan, Zornotzako COVID konsultategian egin eban behar. Gero Igorrekoa sortzean lagundu eta hor be ibili da gaixoak atendiduten. Hurrengo baten, protokoloak diseinetako orduan, osasun langileen esperientzia kontuan izatea eta erabaki ahalmen handiagoa aldarrikatzen dau. **7. orrialdea**

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizidadea: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com
www.begitu.org

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
bagila.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
Elexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2, liburutegia (Lemoa)

BICIS AS
Arratiarron
dendea

JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

BICIS AN BIZI
www.bicisamorsbieta.com • AMOREBIETA-ETXANO

Literatura txokoa

EL LABERINTO DE LAS ACEITUNAS

Konfinamentu garai hau gogorra izan bada be alde positibo batzuk be euki dauzala esan neike (nire kasuan behintzat). Adibidez, irakurteko normalean baino denpora gehiago euki dodala, eta pendiente euki dodazan liburukaz osotutako piloa arean txikituteko aukera emon deusta horrek. Oingoan dakartsuedan liburu hau pilo horretatik urten-dakoetariko bat da.

Baina liburu honetaz berba egiteko ezin dot aitatu barik itxi Mendozak berak idatzitako *El misterio de la cripta embrujada* eleberria, esan geinkelako azken honen bigarren atala dala "oliben labirinto" hau. Lehenengo liburu horregaz euki dodan harremana berezixoa izan da gainera, 14 urte neukazala

hartu nebalako lehenengoz esku artean, etxean ikusita tituluak erakarri egin nindualako (guraso irakurzaleak eukitea liburu artean hazteko eta liburukaz txikitatiko gozatuteko aukera ederra emon deusta). Tituluko "misterio" eta "sorgindua" berbak liburu irakurteko gogo bizitu eusten; baina birritan saiatu arren ez nintzan gai izan bigarren kapitulura be pase-tako, ezer ulertu ezinda frustrata itxi neban azkenean.

Barruraino sartuta urteak eta urteak eukinda gero oin dala urte bi arantzaxo hori ateratea lortu neban, liburu hiru garrenez zabaldu ostean. Sorpresa ederra izan zan liburu, eta hainbeste gozatu neban Mendozaren idazteko ereagaz bigarren "atal" hau

be pentsau barik erosi nebala (nahiz eta irakurri bakoen pilora joan).

Bizi dogun garai gogor honetan umore apur bat behar nebala eta duda barik hartu neban liburu, lehenengo atalagaz moduan ondo pasauko nebalakoan. Eta holan izan da, bai. Ez da barre algaraka irakurriko dozun liburu, baina seguru nago hasikeratik amaierara arpegian irribarre bat daukazula pasauko dozuzala orriak.

Liburuko protagonistea (liburu bietakoa) zoroetxetik atera daben personai xelebrea da, frankismo osteko Bartzelonan bizi dana. Bere eginbeharra diruz betetako maletatxo bat Madrileran eroan eta bila etorriko danari emotea baino

ez da, holan zoroetxetik libre gelditu ahal izateko, baina abentura korapilatu egingo da maletea desagertu eta tartean hildakoak bata bestean ostean agertuten diranean. Protagonistek bere inteligentzia erabiliko dau pistak lotuteko eta misterio iluna argitzeko. Irakurleak istorioan aurrera egitea oso erraza dauka Mendozak kontetako eta idazteko daukan moduak lagunduta, egoera absurdo eta surrealista sinesgarri eginaz. 70. hamarkadako gizarte dekadentean poderedunai kritikea be ez da falta polizia-liburuaren karrikatura honetan.

Bata eta bestea irakurteko konbitea dozu testu hau, ederto pasauko dozula seguru nago eta.

Hektor Rodriguez

Eduardo Mendoza

El laberinto de las aceitunas

1982, Booklet argitaletxea

320 orrialde



Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 1etik 7ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 8tik 14ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 15etik 21era

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atuxa Saiburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren

94 433 33 33

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Amatau



Izetuta dagoan argia kenduteko, sua geldituteko edo uraren grifoa eten egiteko amatau eta amatatu erabilten doguz (ámatau edo ámateu, ahoskatuta). Batuan, itzali esaten da gehienbat. Adibidea: "Suak amatau barik ospatuten dogu Gabon Zaharra". Badago gure artean amatau berbeagaz erlazionautako esamolde hau: "Etxeko sua, etxeko hautsagaz amatau", hau da, etxeko gorabeherak etxe-barruan konpondu behar dira.

ERETXIA

Noz da garaia?

!! Lan egiteko modu bi dagoz: bertikaltasunez, inoren aportazio barik ebatziak hartzea edo horizontaltasunez, kooperazioan lan egitea". Berba honeek erabili ebazan Urruzunok, EH Bilduko legebiltzarkideak, Urkullu lehendakariaren kudeaketea baloretako.

Askotan entzun ahal izan da EAJ-k eta Urkullu lehendakariak hauteskundeak konbokatuko "prisea" daukela eta ez dala horretaz berba egiteko sasoia. Legebiltzarrean ordezkariak daukien alderdi politiko guztiak emon dabe honen inguruko eretxia, holan izan behar dala inok ukatu ezin daualarik. Eretxi desbardinak egonda be, danak antzeko esaldiagaz amaituten dabe euren azalpena: "Lehendakariaren kompetentzia da hauteskundeetan data jartzea. Berak esan beharko dau".

Hau kontuan eukinda, Urkullu lehendakariak, posizino guztiz demokratiko batetik, alderdi politiko guztiakaz eta lehendakari izateko hautagaiakaz batzar bi egin dauz, garagarriaren 12ko data ipini baino lehenago, danon eretxiak eta aportazioak entzuteko eta baloretako. Oin badakigu, Urruzunoren berbetan, zein dan lehendakariak aukeratu dauan lan egiteko modua: horizontaltasuna. Hori bai, horizontaltasunean lan egiteko, kooperazio horretan parte hartuko daben agenteen disposizinoak be egon behar da.

Honen inguruko posizinoak talde bitan banandu daitezke. Alde batetik, PSE, PP eta EQUO berdeak daukaguz (oin arte Elkarrekin Podemos taldean egon diranak), EAJ-gaz batera, Urkullu lehendakariaren proposamena baiezkozat emoten dabenak, beti be osasun erispideak baimenduten badabe eta segurtasun neurriak bermatuten badira. Eta, bestalde, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, lehendakariaren proposamenari *el no por el* no aplikaduten deusienak.

Danok dakigu egoera berezi baten aurrean gagozala eta osa-



MAITANE IPIÑAZAR
EAJ-PNVren legebiltzarkidea

sunaren zaintza dagoala danaren gainera. Hori kontuan eukinda, Eusko Jaurlaritzak eskatutako osasun publikoko txostenak dino positibo emon daben kasuak eta heriotza kasuak be beheakada progresiboa daukiela eta horrek larrialdi egoera gainditu dogula erakusten daukela. Gainera, garagarriean birusaren egoera leunago bat eukingo dogula be baiezatzaten dabe datuak. Aditu guztiak, edo gehienak behintzat, udagoienean pandemiaren berragertze bat egongo dala esaten dabe eta hori be kontuan eukin behar da.

Eusko Legebiltzarrean be egoera berezi baten gagoz. Zezeilearen 11n Legebiltzarra disolbidu zanetik, Diputazio Iraunkor bat dabil euskal gizartearen beharizana erantzuna emoteko lanean. Bertan, legebiltzar talde bakoitzeko kide kopuru murriztua dago, zer esanik ez lan egiteko edo ebatziak hartzeako daukan gaitasun mugatua. Holan, zelan egingo deusagu aurre osasun krisi honen ostean datorren krisi sozio-ekonomikoari kompetentzia mugatuak daukazan Legebiltzar bat badaukagu?

Bestalde, legezko inperatibo baten aurrean gagoz. Urri bigarrenaren 25ean amaituten da Eusko Legebiltzarra eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritza eta hurrengo lehendakaria aukeratuete epea. Behartuta gagoz epe hori baino lehenago hauteskundeak egitera. Zer gertatuko zan lehendakariak ebatzi izan baleu hasikeratik hauteskundeak epez kanpo luzatutea, bere mandatua herritarren borondatek kanpo luzatuz eta legearen kontra joanda?

Beraz, argi geratuten da Urkullu lehendakariak hauteskundeak egiteko ipinitako data ez dala zentzun barik hartutako ebatzi bat: osasun publikoko txostenak egoera hobetuegoa baiezatzaten dabe, Jaurlaritza sendo batek egingo deutse aurre krisi sozio-ekonomikoari eta, garagarriean egin ezin bada, lege barruan beste data posible bat ipinteko aukerea daukagu. Norberaren erispideetan geldituten da garaia noz dan baloretea.

LUMATUTEN



JOSU BASOZABAL

Krisia eta egokitzapena

Hilabete honeetan gehien entzuten gabizan berbea krisia da. Osasun-krisia, krisi ekonomikoa, ingurumen-krisia, krisi humanitaria... Ez da krisi bat bizi dogun lehen aldia, ez behintzat egungoa bezain gogorra. Egoera kritiko baten aurrean deprimidu edo malenkonia jausten diran personak eta taldeak dagoz. Eta badira beste batzuk aurrera egiteko aktibetan diranak.

Oin dala egun batzuk, nire paperak eta artxiboak mobiduten nengoala, Albert Einstein-eri egotzitako aitamen bat topau neban, topiko bat agian (ñabarduraz irakurri beharrekoa, ekarri dituan zoritxar personalak dirala eta): "Krisia personai eta herrialdeai gertatu dakikeen bedeinkapenik onena da, krisiak aurrerapenak dakarzalako. Sormena larritasunetik sortzean da, eguna gau ilunetik jaioten dan legez. Asmakuntzak, aurkikuntzak eta estrategia han-

diak sortu dabez krisiak. Krisia gaintzen dauanak bere burua gaintzen dau, bera gaintua izan barik".

Nire ustez, hau da jarkera egokia, eta ez dinot politikariak eta agintariak jagokienean bakarrik, guri guztioi be jagokuna be bada.

Bat-batean dana aldatu da. Egun gitxitan, etorkizunaren ziurbakotasunean murgildu gara. ABLEak, langabezia dagozan personak, diru-sarrerak oso murriztuta dituenak... Zer egin?

Lehenengo eta behin, alkartasuna adierazo, eskua emon behar dauanari eta altxatzen lagundu, eta hortik abiatuta planifikatu eta gauzak beste modu baten pentsetan hasi.

Etorriko diran aldaketen abadura bizkorak, krisi existentzialak be eragingo deuskuz. Kakoa "egokitzapena" berbea da. Egokitzeko, malguak eta kohesionauak izateko gai diran erakundeak eutsi egingo deutsee aldaketak, eta beste aktiboago eta sortzaileagoak ez ditue jango. Gaur egun badaukaguz nahikoa tresna, ez guztiak, aldaketak naturaltasunez digeriduteko gai izango dan euskal gizarte sortzeako, eta gizarte bizia legez jarraituteko, beste egitura batzuk -baita estatuak be- sunsitzentzen diranean.

Hau da, izan gaitezkan baikorrek eta sortzaileak, eta ez deiegun kasurik egin "beti ondo geratzen diran" pesimista eta barritsuai.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

Gaia jarrita: "Maite dozun hori"

1

Pandemi honek zenbat arpegi txar erakutsi doskuzen famili lagun zahar nahiz ta gazte erraskan zulora jausten egun batetik bestera zenbat bizitza joakun aldatzen ta tristea da holan ezpada ezkarela konturatzen.

2

Hiru hiletan alkar ikusi ta alkar ikutu barik askok ta askok hasera baten irteera ezin topaurik hurbilekoen maitasun falta burumakur ta tristerik ta konturatzen gara ze txiki bihurtzen garen bakarrik.

3

Aitite amama edo aitamak bizi diren baserria bihurtu jaku gehiengoari udarako hotel barria albo batera itxiz hiriak hartuz mendi ta herria lehenagokoan bizitza ere ez ahal da zoragarria.

4

Arratiarrok zorionez bertan daukogu guztia nonahi erreka mendi baserri edo merkatu txikiak be bai momentu dana geratu barik hor egon dire danon zai ta ia hau dana pasautekoan ez garen ahaztuteko gai.

BEGI TXINDORRA

COVID-19aren eta itxialdiaren negua joan egin da. Mendian lorak lez, herrietan jentek hartu dauz kaleak barriro. Isiltasunaren hotza joan da eta jentearen barbaroan eta umeen barreen zaratsa entzuten da barriro. Jentea kalean dago, airea, eguzkia edo-eta euria hartzean. Besteakaz berbetan, lasai, pozik, bizitzaz disrutetan bildur barik.

Nik, lasai eta pozik begiratzen deutset, errekeari edo mendiari begiratzen deusadan moduan; gauza naturalak eragiten daben harridura eta aldi berean, lasaitasun, poztasun eta betetasun horregaz. Zer naturalago eta ederrago jentea disrutetan ikustea baino! Zea Mays-ek *Negua joan da ta* kantuan esaten dauan moduan, kaleetan be eguzkiaren izpi txiki bat agertzen doa eta "poztasun handi batek besarkatzen nau".

Mesedez, ozen esan, negu kruel hau joan egin dela!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Lehendakari Agor 22
ETROITZ
Agortzen gurek osatzen.

Errefortzua behar daben ikasleak baino ez dira itzuli ikasgeletara

Arratian ez da apenas ikaslerik itzuli ikasgeletara ikasturtea amaituteko. Haur eta Lehen Hezkuntzakoak ez, baina DBHkoak, Batxilergokoak eta Lanbide Heziketakoak ikasgeletara itzuli ahal ziran maiatzaren 25etik aurrera. Arratiako Institutuko ikasleak ez dira itzuli eta Lemoako IPI eta Zulaibar Lanbide Ikastetxeetako errefortzukoak baino ez. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bialdutako protokoloa jarraituta hasi ebezan eskola presenzialak zeozer erreperau behar daben ikasleak maiatzaren 25ean. Lemoako IPI n barriz, bagilaren 1ean hastekoak dira, hemen be, DBH 4.eko errefortzua behar daben ikasleak bueltauko dira ikasgeletara, egun alternatiboetan eta ordu batzuetan bakarrik.

Erredakzinoa

AEK hasi da barriz eskolak emoten baina bertan behera itxi ditu barnetegiak. Ikastaroak be emongo ditu udan.

Dana dala, deseskalatzearen bi-

garren fasea izan dan hamabostaldi honetan, aktibidadea berreskuratzen doa eskualdea: etendako zerbitzu batzuk hasi dira martxan barriror, herrietako komertzio eta taberna gehiagok zabaldu dabez atea eta udalak diru laguntzak onartu dabez

itxialdiagaitik kaltetuai lagunduteko. Kulturean, aire zabaleko pintura lehiaketea iragarri dau Zeanurik, off line egingo dan lehenengoetako ekitaldia izango dana.

Segurtasun neurri zorrotzakaz, zahar etxeetako egoiliarak

hainbeste behar ebezan bisitak jasoten hasi dira. Izan be, bisitarako protokoloa prestatu dau Bizkaiko Foru Aldundiak eta bost egunetik behin senide baten bisittea jasoteko aukerea daukie.

Udal zerbitzuak

Martxan barriror ipini dan zerbitzuetako bat, Arratiako Udalen Mankomunitatearen (AUM) tamaina handiko hondakinen bilketea da. Lehengo moduan, ezer kalean itxi aurretik, deitu egin behar da AUM-era, noz atera ahal dan jakiteko. Zeberion be martxan dago zerbitzua.

Eta bagilean zehar, udalak etendako aurrez aurreko zerbitzu batzuk emoten hasiko dira. Arteako Udalak berbarako, oin eta behatzen estetika zerbitzua abiatuko dau barriror bagilaren 1etik aurrera.

Bediako liburutegiak bagilaren 1etik aurrera zabalduko ditu atea 10:30etik 13:30era. Konsulta aretoaren aforoa murriztuta izango dau distantzia neurriak gorde ahal izateko. Liburu eskaerak WhatsApp, posta elektronikoko edo telefonoz egiten jarraitu ahal diran arren, bertan be egin ahal jakiez liburuzana.

Arantzazuko liburutegia martxan da maiatzaren 25etik. Li-

buruak hartu eta itxi daitezke arrastiko ordutegian. Lemoakoa be martxan dago barriror. Igorren ez dago zehaztuta baina seguruenik bagilan zabalduko dauz atea.

Lemoan, gimnasioko monitorea saioak gidatuko ditue kalean, asteleheneetik barikura, goizeko 10:00etan eta arrastiko 18:00etan. Saio bakotxean, monitorea gainera, 16 urtetik gorako 9 persona egongo dira eta parte hartzeako izena emon behar da aurretik.

Bideak konponduten

Urigitza lanak, lehengo eritimoa hartu dabela esan leiteke. Arantzazun, hamabostaldi honetan, aurreko astean apurtutako ur hornidurearen hodi bat konpondu dabe, Argiñako bidean harrietak egin ditue eta Zalbiden urbidea egiten dabiz. Gainera, Herriko Tabernaren kontratua amaitu da eta barriror be kontratua esleitzeko "aldaketa batzuk egiten gabiz: sutean tresna elektrikoak ipini eta margotzen, berbarako" azaldu deutso BEGITURI Asier Aburto Arantzazuko alkateak.

Artean, oinezkoen bideak eta auzoetakoak garbitu ditu udalak eta Astuibekoko errekerara saritzeako sarrera barria zabaldu dau.

Mobilizazioak gose greban dagoan Patxi Ruizen presoaren alde



Maiatzaren 24an Lemoan egindako konzentrazioa.

Erredakzinoa

Zeberion Gazte Asanbladako lau lagunek 24 orduko baraualdia egin eben maiatzaren 21ean Patxi Ruiz gose greban dagoan presoari babesa emoteko. Maiatzaren 24an barriz, konzentrazioa egin eben Lemoako Intzuntzako bidekurutzean. Hilaren 29an, maiatzeko azken barikuan, hileroko presoaren aldeko konzentrazioak egin ebezan Lemoan eta Igorren.

Patxi Ruiz presoak maiatzaren 10ean hasi eban gose eta egarri greba Murtzia II kartzelan, oin gose greban dago.

Baraualdia Zeberion

Hego Uribeko "Kapitala eta Birusa"

deitutako dinamikearen barruan, 24 orduko baraualdia egin eben Zeberioako maiatzaren 21ean 12:00etan hasita. Hurrengo egunetan Arrigorriaga, Galdakao eta Ugaoko jenteak jarraitu eban baraualdia. "Ekimen honen bitartez, Patxi alkatasuna heldu arazo eta bere burrukea gure egin gura izan dogu" azaldu deutse BEGITURI antolatzaileak.

Sare

Diman, Dimen Etxean Gure Doguzek antolnuta Sarearen "Izan bidea, ibiltarien sarea" ekimena burutu zan maiatzaren 31n. Hainbat herritarrek euskal preso eta igeslarien egoerari urtenbidea emoteko hainbat kilometro egin ebezan oinez.



Zeanuriko Deiene Gurtubaik bialdutako argazkiak irabazi dau Argazki Lehiaketea

Erredakzinoa

Etxean Hobeto Argazki Lehiaketearen irabazlea ebazteko finalean, irribarre bat atera deuskuen argazkiak egon dira. Izan be, horixe zan lehiaketearen helburua eta irabazteko erispide nagusia. Deiene Gurtubaik bialdutakoak gainera, ironia, bizitzaren momentu txarrai aurre egiteko jarkera zuhur eta dotorea eta

irreberentzia puntu bat be erakusten dau, epaimahaia guztiz konkistatu dauana. Ez da lehenengo aldia Zeanurikoak BEGITURI argazki lehiaketa bat irabazten dauana, igazko oportetakoan be lehenengo saria eroan eban eta. Oingoan, Garena jatetxean persona birentzako bazkaria edo afaria izango dau saritzat.

Etxean Hobeto itxialdiko Argazki Lehiaketan 29 egileren 59 argazki hartu dabe parte.

BEDIA

Bediak bideokonferentziaz egindako Osoko Bilkuran onartu dauz 2020rako udal kontuak**Erredakzinoa**

COVID-19aren itxialdian onartu zan 1.489.507 euroko aurrekontua, igaz baino %13,89 gehiago, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz.

Aurrekontuen zatirik handiena, %45 udalaren funtzionamentuko gastuetarako da. Inbersinoetarako, 499.740 euro dagoz, %33a hain zuzen, hasita dagozan lanak amaituteko; hau da, Jauregi auzoko lanetarako, Murtatzako oinezko ibilbiderako eta Ereñoko


hornidura sarea amaituteko.

Kulturarako 320.566 euro aurrekontuen dira; aurrekontuaren %21,5a.

Baina COVID-19a dala-eta, sortutako krisi ekonomikoari aurre egiteko aldaketak egon daitezke. Izan be, lehentasunak aldatzen joango dira, krisiak aurrera egin ahala.

EH Bilduk abstentzinoa

EH Bildu abstenidu egin zan, euren esanetan, "sortzeako prozesua ez dalako parte hartzailea izan".



Argazkia: Bediako Udaleko aldizkaria.

AREATZA, ARTEA, IGORRE

Batzokietan EAJren kontrako pintaketak agertu dira**Erredakzinoa**

Maiatzaren 26an, Artea eta Areatzako batzokietan "Patxi Ruiz gose greban" eta "Amnistia osoa" mezua, eta diana baten erdian, "PNV" idatzita agertu ziran. Igorren hilaren 15ean be, "Patxi gose ta egarri greban" eta "PNV hiltzaileak" pintaketak agertu ziran. EAJ-PNVk bere kontrako "jazarpen eta hertsapen" kanpaina salatu dau.

Arratiako hiru honeekaz, 22 batzokietan agertu dira pintaketak atzen asteotan. Pintaketak sinatu barik agertu dira. Hainbat iturriren arabera, "Amnistiaren aldeko eta errepresioaren aurkako Mugimen-

duaren ingurukoak" egindakoak izango litzatekez.

Patxi Ruiz presoak hamabost egun gose greban eriozian maiatzaren 26an, Murtzia II kartzelan.

Beste formazino politikoen kontra

Bizkaiko PSE-EEren hainbat egotzetan be agertu dira antzeko pintaketak, baita Idoia Mendia PSE-EEko Eusko Legebiltzarrerako lehendakariaren etxeko atarian.

Elkarrekin Podemosen kontrako pintaketak be agertu dira. Baita Sorturen kontrakoak be. Izan be, Bilboko Errondabide Herriko Tabernan "Sortu errudun" agertu zan.



Arteko Batzokia.

ARRATIA

Harribide Fundazinarako diru bilketea antolatu eban eleizeak itxialdian**Erredakzinoa**

Mezarik ez da egon itxialdiaren 0 eta 1 faseetan. Ha-ta guzti be, hainbat ekintza antolatu ditu Arratiako eleizak; etxe bako gazteak lagunduten deusan Harribide Fundazinarako diru bilketea eta zahar etxeetako egoiliarri telefono deiak barbarako. Argazkiak eta bideoak be konpartidu dabez eta jentek idatzitako testu eta argazkiak *Horma bako parrokiak. 57 egun esperantza kutsatzen* pdf.an batu ditue.

Meza bako sasoiari, Horma

bako parrokiak izeneko ekimena ipini eban martxan Zeanuri, Igorre, Arantzazu eta Arteako parrokiak. Gero, Dima, Areatza, Lemoa eta Bediako jentea be batu zan ekimen honetara. Holan, itxialdian, kultuagaz lotutako ekimen batzuk online edo telefonoz egin ditue.

Hildako guztien aldeko dolu eguna deitu eban Arratiako eleizeak udalakaz batera, konfinamentuaren 40. egunean, eta hil kanpaiak jo ebezan Arratiako herri guztietan. Zeanurin, ikurriña masta erdian egon zan, krespoi balzagaz

eta bandoa atera eban Udalak. COVID-19ak hildako senide baten testigantzea be konpartidu eban. "Tanatorio eta kanposantuetan hainbat aldiz egon behar izan dot familiai lagunduten. Oso agur tristeak. Inhumanoak." dino Jose Mari Kortazar abadeak. "Biktimak aintzat hartu eta familiakoai lagundu behar deusegula, behin eta barriz esaten ebenak, hemen mutu egozan".



57 egun esperantza kutsatzen



ARANTZAZU, ARTEA, IGORRE

Zuzeneko diru laguntzak eta bono kanpainak merkataritza suspertzeko

Ostalari, merkatar, autonomo, enpresa txikientzat eta orokorrean itxialdiak larri kaltetatukoentzat diru laguntzak onartu ditue udaletan.

Erredakzinoa

Herriko komertzioetan erosteko bonoak, autonomoai zuzeneko diru-laguntzak eta kalte sozialari aurre egiteko beste laguntza batzuk be ipini dabez martxan udalak.

Arantzazu

Alarma egoereagaitik aktibidadea eten behar izan eban autonomoai laguntzak emoteko ordenantzea, maiatzaren 26an onartu eban Arantzazun. Udalak 400 euroko laguntza emongo deutse gastu fijoak ordaindu ahal izateko autonomoai eta 10 langile baino gutxiagoko enpresari. Langile bat izan ezker, beste 300 euro jasoko dau kaltetuak, eta langile bi baino gehiago egon ezker, bigarrenetik aurrera, 200 euro langile bakoetako. Alokairurako diru-laguntzak be emongo dabez, ordaintutako errenten %60 arte eta 1.500 euro gehienez. Hartzaile bakoetako, gehienez, 2.200 euroko diru laguntza jaso ahal izango dau.

Eskaera egiteko, alarma egoereagaitik aktibidadeak etetearen zertifikazinoa, alokairuaren ordainagiriak eta eskaera orria aurkeztu behar dira udal bulegoetan. Guztira 15.000 euro autonomo eta enpresentzat eta 5.000 familientzat onartu dira.

Artea

Arteak, maiatzaren 12an, zuzen-

neko diru-laguntzak eta bonoak onartu eban. Alarma egoeran aktibidade euki ez daben autonomoai, 400 euroko diru laguntza eta, alokairua 500 eurotik gorakoa bada, alokairurako 100 euroko diru laguntzak emongo deusaz Udalak. Udalaren lokaletan dagozan tabernai, Ustrukue eta Herriko Bentari, hain zuzen be, itxita egon diranen denpora tarteko alokairua ez kobretzea be ebatzi zan.

Lau langilera arte dituen enpresa txikerrai, aurrekoaz gainera, 200 euroko laguntza emongo jakie behargin bakoetako.

Tabernetan gastetako bonoak be aterako ditu Udalak. "5+5 bonoak dira, hau da 5 euro erosi eta Udalak beste 5 ipinten ditu. Bonoak, Arteako lau tabernetan konsumidutako dira abenduaren 31 baino lehenago. Hilero 200 bono aterako dira, urtean, lau aldiz. Guztira, 4.000 euro inguru ipiniko ditu udalak, taberna bakoetarako 1.000 euro udaletxearen partetik eta beste 1.000 euro jentearen partetik, mobilidutako dira" azaldu deutso BEGURI Gorka Beitia zinegotziak. Gehienez 4 bono erosi ahal izango dira hilean, persona bakoetako eta taberna desbardinatutakoak izan behar dira.

Arteko Udalak 30.000 euro inguru bideratuko ditu COVID-19ak eragindako kalte sozial eta ekonomikoari aurre egiteko. Diru laguntzak bagilaren 30etik aurrera eskatu ahal izango dira.

Igorre

Igorren diru laguntzak onartuteko plenoa bagilaren 1ean izango da eta 200.000 euro onartutea aurrekontuen da autonomo eta enpresa txikiari zuzeneko diru-laguntzen bidez lagunduteko. Bono kanpainai jagokienean, urtero egiten dan Gure Denda apirilako egoan aurreikusita eta bertan behera geratu zan COVID-19a dala eta. Kanpaina hori bagilagaragarrean egitea espero dau Illart Gumuzio Igorreko alkateak eta bigarren bono kanpaina bat be egiteko asmoa agertu dau. Tabernariak aurten ez jakie terrazetako tasea kobrauko.

Neurriak onartzeko orduan ez da adostasunik espero, udal talde bien jarkerak sano desbardinak diralako. EAJ-PNVren proposamena, 400.000 eurokoa zan. Ekonomia berraktibetako laguntza neurrietarako 250.000 euro eta laguntza sozial neurrietarako 150.000 euro. Izan be, Jeltzaleen arabera, Udalak 991.042,94 euroko diruzaintzako gerakina dauka, 2019an gastau ez ebana, eta "EAJ-PNVren udal taldearen arabera, udala asmo handiagokoa izan daiteke ekonomia suspertzeko eta gizarte-laguntzetarako laguntzetan".

Illart Gumuzio alkatearen (EH Bildu) arabera, EAJ-PNVk proposatutako neurri asko bideratuta dagoz daborduko eta ez dagoz diru-laguntza barrien artean.

ARRATIA

Izaskun Martin: "Osasun langileok errementautu gagoz"

Izaskun Martin erizaina da. Areatzan, Artean eta Igorren egiten dau behar normalean eta COVID-19aren momenturik gogorrenetan be hor egon da, beste osasun langileakaz batera, gaixoak atendiduten. Izan be, ospitaleratzea behar ez eban Arratiako COVID-19ak jotako jentea, Zornotzara bialdu izan dabe, behar ebezan probak egiteko; eta han egon zan Izaskun Martin apirilaren atzenengo aste biak. Gero, Igorreko osasun zentroa pasau dabez Arratiakoak, eta han be jarraitzen dau beharrean.

Erredakzioa

COVID-19aren aurretik Areatzan eta Artean egiten zenuan lan, ezta?

Bai. Areatzan eta Artean 08:00retatik 15:00ak arte egiten dot lan. Goizean goiz joaten naz Areatzara eta gero Arteara. Astean behin be Igorrera joan izan naz, odola ateratera. Hori COVID-19aren krisiaren arte, oin beste gauza bat da.

Arratiako ospitaleratu behar ez ziran gaixoak Zornotzara joan behar izan dabe, beharrezkoak ziran probak egitera eta beste patologiak artatzera, eta hantxe egon zara zu. Zelan izan zan hara joatearena?

Osakidetzak leku konkretu batzuk ipini ebezan COVID-19ko susmoa eukien edo arnas gaixotasunak, eztarikiko minak... eukiezanak ikusteko. Hasikeran, horreexek ziran sintomak: kalenturea eta arnas estua eta horreek begiratzeko egon zan Zornotzako zentroa. Han Zornotza eta Arratiako jentea artatzen zan.

Momentu horretan, Arratiako erizain batzuk, Galdakaoko intensiboetara, Zornotzara eta beste leku batzuetara joan ziran lagunduten. Zornotzan egoazan nahiko txarto langile aldetik, baja asko egoazan eta. Eta guri lagundutea tokau jakun.

Ni Zornotzako COVID zentroan egon nintzan aste bi aste santuaren ostean. Zornotzako osasun zentroa barria da eta sano ondo ipini dabe segurtasunez gaixoak atendiduteko. Beheko aldea hutsitu eben eta han ipini ebezan kon-

sultak. Itxarongela oso-oso handi bat egoan eta han egoten ziran 5 bat persona, baina oso urrun bata besterengandik.

Mediku bi, erizain bi eta garbitzaile bat gengoan egunean zehar. Batez be PCRak egin doguz eta gaixoak behar ebezan probak, baina positibo emondakoen beste patologiak be tratetan genduzan.

Niretzat gogorragoa izan da momentu horreetan lan egitea Artean, Areatzan eta Igorren, Zornotzan baino. COVID-19 zentro batera zoazenean badakizu nora zoazen. Hasikeran apur bat bildurtuta gengoan danok, baina seguru sentidu gara. Gure herrietan gainera etxeetara bisitak egitean, estres handia sortzean jatan, ekipoagaz joan arren, ezin zalako dana guztiz kontrolau eta erantzukizun handia da norbera ez kutsatzea gero jentea ez kutsatzeko. Eta etxe batera joandakoan, etxeok printzipioz, COVID-19rik eukiko ez daben arren, ez dago jakiterik.

Osasun langileok Norbera Babesteko Ekipo (NBE) nahikorik izan dozu? Zuen osasuna babestuta egoala sentidu dozu?

Ni neu, NBEgaz sentidu naz sano seguru. Joaten ginan normal jantzita eta hor uniforme bat janzen genduan barruan egoan aldagela baten eta gero janzen genduan ekipo osoa. Gainera, lanean denpora guztian garbitzaile bategaz egon gara. Persona bat egon ostean, jarlekua, lurra, guk erabilitako gauza guztiak eta harek ikututako guztia garbitzen eban. Ha-ta guzti be estres handia sortzean jatzu ea dana ondo egin dozun ala ez



pentsatzean, baina orokorrean segurtasun sensazioa euki dot.

Momenturik txarrenetan, kutsatu gehien egon dan momentuetan, saturazioa sentidu dozu?

Ez. Zornotzako zentroan ez. Ospitaleetan akaso bai, baina hau zan konsulta leku bat, konsulta lekua COVID sintomak eukientzat. Kasu laria ospitalera joaten ziran zuzenean.

Gainera, Arratian oso kasu gitxi egon dira. Hemen suerte handia euki dogu, oin arte behintzat.

Oin, Igorreko Osasun Zentroan artatzen dira Arratiako positiboak. Lana bardina da Zornotzakoan eta hemen?

Igorren protokoloa bardina izan da, baina lekua ez da bardina. Igorreko osasun zentroak ez dauka lekurik COVID zentro bat egiteko. Egin dogu, baina leku txikia da, eta ez dagoz leku desbardinak konsulta desbardinatarako; hau da,

pediatriarako, probetarako, odol analisietarako... Momentu batzuetan sei persona egon gara sala berean, eta barruan ekipoagaz bero handia dago. Lekua egokia izan behar da, ezin dalako urten eta sartu; garbitzailea be egon behar da, gaixoak urteterakoan dana garbi egoteko.

Eta beste arazoa denporea da. Segurtasun neurriak danak eskatzen dau denpora gehiago. PCR bat minutu bat edo minutu biko kontua da, baina gero, garbitu egin behar da dana.

Antolakuntza aldetik, zer egin da ondo eta zer hobetu beharko litzateke hurrengoan?

Nire eretxian antolakuntza hierarkikoa izan da, goitik beherakoa, eta guk, esandakoa egin behar izan dogu. Eta ia egunero protokoloa aldatzen zan. Nik ulertzen dot hasikeran inork ez jakitea zer zan hau eta zelan aurre egin, baina oin, gure esperientzia hartu beharko leukie kontuan protokoloak diseinetako eta hain lanpetuta egon ez gaitezan.

Hurrengo baterako, gauzak beste modu baten egitea eskatuko neuke, lehenengo arretakoak erabaki ahalmen handiagoa euki beharko geunke. Apirilaren azkenean eta maiatzaren hasikeran, lana gainezka euki genduan: Espainiako gobernuak eskatutako Arratiako azterketea, Eusko Jaurlaritzak eskatutakoa, zahar etxe guztietan PCRak... eta Igorren Arratiako COVID zentroa sortu. Zoratzekoa izan zan! Ordu piloa sartu behar izan doguz eta errementautu gagoz. Gainera, eskatzen eben guztia momentu berean egin behar zan.

COVID-19aren beste aldi bat, demagun urrian, gertatzen bada, ez gara hutsetik abiatuko. Ikasi dogu ezer? Osasun sistemari jagokonean, egoera hobea batetik abiatuko gara?

Gertatzen bada eukiko doguz, eta hori argi daukat, babes ekipo gehiago. Eta Igorren, kanpoan, estruktura batek egon beharko leuke COVID-19a atendiduteko. Osasun zentro normala izaten jarraitu beharko leuke barruan, eta kanpoan COVIDak jotakoak artatzeko, ze momentu honetan ez daukagu lekurik.

Lehen, babes ekipoak bakarrik ospitaleetan eukiten ziran. Guk bakarrik ekipo bat geunkan bidalitakoa, eta batzuk ebola, gripe A eta hegazi-griperakoak geunkazan. Eta ikasi dogun gauza bat da babes ekipo gehiago behar dirala, baita konsultetarako be. Uste dot euki behar dala biltegiren baten stock handi-handi bat, badaezpada.

Eta NBEak mundu guztia errentzat egongo balira, akaso ez zan itxi beharko jentea bakarrik hiltzen, egin behar izan dan moduan. NBEak jantzita, familiakoak egon ahal izango ziran hiltzen dagoanaren ondoan. Baina, egon diran babes ekipoak, osasun langileentzat eta zahar etxeentzat erabili behar izan dira.

Normalidadera itzultzen hasizazie? Lehengo beharretara?

Bueno, lehenengoz eskerrak emon gura deusatu leku guztietako jenteari, bere konportamenduak ze primeran egin dabez gauzak. Gauza bat azaldu gura dot, ze esango dau jentek, Artean barruan egon arren, dana zarratuta daukagula. Medikuek normalean telefonoz atendiduten dau eta nik bakarrik derrigorrezkoa egiten dot, eta horrek errazoi bat dauka. Hasikeran, Osakidetzak agindu eban administratiborik ez daukien zentroak zarratu egin behar zirala. Gure kasuan, guk pentsau genduan zarratu ezker, jentea, gauza guztietarako Igorrera joan beharko zala eta hori konfinamendu momentuan ez jakun aproposa iruditu. Gainera guztiok ez ginan kabitzen Igorren segurtasun neurriak mantenduta. Horregaitik, ebatzi genduan geratutea baina administratiborik ez daukagunez ezin doguz gauzak normal atendidu. Batez be, telefonoz atendiduten dogu. Eta barruan gauzak egiten ibiltzen gara. Ikusten badabe ez dogula zabaltzen telefonoz gagozalako edo beste gauzaren bat egiten gagozalako izango da.

Oin, apurka-apurka joango gara konsultak zabaltzen. Baina, gauzak ezin daitezke egin lehengo moduan. Gauzak dagozan moduan, ezin dogu bost minuturo pazienterik ikusi, denporea behar dogu, segurtasun denporea. Izan be, paziente baxotxaren ostean, berak ikututako gauzak desinfektatu behar doguz, eta kontuz ibili, ze osasun langileok ezin gara izan gaixotasunaren kutsatze iturri.

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA - SINTASOLA - PAPEREA
Elkasko, 33 D - 1º - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 621 64 62 - 906 864 018

Olaxte
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 657 70 03 - olaxteoptik@hotmail.es

Kili-Kili
Amopu eta Puzituburo
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 672 43 81

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Galdar 666 58 20 06
Puzeta poligonoa, 10 IEMOA - beeredariak@gmail.com

JOXERRA AIHARTZA

"Hobe dogu jatorrizko arazoak ekiditea, ondorioak konpontzen ibiltea baino"

Joxerra Aihartza (Donostia, 1962) atzen 25 urteotan Dimako Oban bizi da. Biologiako ikasketak Leioan egin ebazan eta zenbait urtetan naturari buruzko dibulgazioan jardun eban. Atzen 27 urteotan Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Zoologiako irakaslea da. Bertan doktore tesia saguzarren inguruan egin eban, eta geroztik be ugaztun honeen ekologiaz dabil ikerketan; batez be, Euskal Herrian eta Iberiar Peninsulan, baina atzen urteotan munduan zehar be bai. Ikerketa horreen artean, saguzarren birusak aztertzeke hainbat lanetan be hartu dau parte.

Erredakzinoa

Berba asko egin da COVID-19 koronabirusaren jatorriaz: pangolina ete zan, saguzarrak, laborategian egindakoa... Oker ez banago frogatu da jatorria animalia baten dagoala. Hori holan da?

Biologian horrelako "atzerantzako" aurkikuntzak ez dira "frogatzen"; ezin da. Datuak konparatu "ondorioak atera" egiten dira batez be, eta horrek bere mugak ditu, ez dogulako gure ingurunea horren ondo ezetuten.

Kasu honetan, COVID-19 birusaren genetika aztertu, eta ezetuten diran beste birus guztiakaz konparau da. Eta ikusi dana da antzekotasun handiena saguzar txinatar baten aurkitutako beste koronabirus bategaz daukala. Horretatik ondorioztatu da COVID-19a seguruenik inoz saguzarren batetik sortutako birus baten ondorengoa izan daitekela. Baina, aldi berean, guztiz bardina ez izateak adierazoten deusku ez dala zuzenean saguzarretik guregana etorri, eta tartean seguruenik beste animalia batzuetan bizi izan dala denpora batez, oindino ezetuten ez doguzanak. Hor sartzean dira pangolina, zibeta eta beste batzuk. Edozelan, garbi esan behar da saguzarrak ez daukiela COVID-19rik, eta are gitxiago hemengoak.

Kontua da koronabirusak (eta bestelako birusak, bakterioak...) asko dagozala munduan, animalia mota bakotzak badituala bereak, eta guk oindino oso animalia gitxiak ezetuten doguzala. Ikerketa hori egin egin behar da, munduan zer dagoan eta zelakoa dan ahalik eta ondoen jakitea beti izango dalako inoz baliagarri. Oin COVID-19ari buruz dakiguna ez zan sekula jakingo urteetan zehar ikertzaileok aritu ez bagina animalia desbardinaren birusak aztertzen.



Joxerra Aihartza beharrean.

Jatorria jakiteak lagundu ahal dau pandemiaren kontrako estrategia eraginkorragoak topetan?

Jatorriak baino, gure inguruan daukaguzan birusen ezagumentu sakonak balio dau. Eta ingurumenaren oinarriko ezagumentuak. Gure ingurumenaz zenbat eta gehiago jakin, orduan eta tresna gehiago daukaguz etorkizunean gertatu daitekezan arazoak aurreikusi eta aurre egiteko. Kasu honetan, animalia desbardinak dituen birusak, bizimodua, ohiturak... jakin barik gatxagoa izango zan gaixotasun hau agertu zanean zer zan be jakitea. Eta oindino gatxagoa konponbiderik topatzea.

Horrek irakasgai bat emoten dau ikerketeari buruz. Izan be askok esaten dabe ikerketea egin behar dala, baina "aplikatua" bakarrik; hau da, "zerbaistarako balio dauana". Ikertzaileok oro har esaten dogu, ordea, oinarriko

"Ingurumena oin baino askoz be gehiago jagon behar dogu, bai ala bai. Ezin dogu onartu berandu danik. Ez da, eta ezin da izan"

ikerketea be beharrezkoa dala, hasikeran —ustez— "ezertarako balio ez" dauan arren. Ezetuten dana bakarrik izango dalako inoz baliagarri. Ezetuten ez dana ez. Oinarriko ikerketea funtsezkoa da herri batek etorkizunik izan dagian. Maila guztietan.

Hartu diran neurriak osasun autoridadeai jarraituz hartu dira. Uste dozu hartu diran neurriak hartu behar ziranak dirala?

Ez naz epidemiologoa, eta beraz, nire eretxia ez da garrantzitsua gai honetan. Edozelan be, makina bat epidemiologoren eta osasun-adituren eretxiak plazaratu dira azken asteotan, eta irakurri dodazan gehienak azpimarratzen dabena gauza bi dira: isolamentua dala, oingoz, izurriari aurre egiteko tresna eraginkorrena, eta funtsezkoa dala ahalik eta test gehien egitea, birusa izan leikien ahalik eta jente gehien identifikatu eta isolatzeko. Nik ez dodaz

ezetuten hemengo autoridadeak erabilten dituen datu gordinak (argitaratzen diranak ez dira nahikoa), baina inguruko herrietan gertatutakoa ikusita iruditzen jata oso uzkur ibili garala itxialdia has-teko eta presa handiegia daukagula bertatik urteteko. Eta bestalde, ez dot ulertzen zergaitik ez diran askoz be test gehiago egin hemen, egiteko aukerak egon badagozanean; eta Munduko Osasun Erakundeak eta aditu gehienak argi adierazo dabenean ahalik eta test gehien egin behar dirala. Egia da populazino oso-gazko test kopuru handia egin dogula, baina daukagun kutsatuen proporzinoagazko balio hori oso txikia da. Ez dot ulertzen, eta inoz inork azaldu beharko dau, garbi ulertzeko moduan.

Gripearen familikoa da COVID-19 koronabirusa? Udagoien barriz zabalduko da? Mutazioakaz?

Egia esan, gripea sortzean dabene birusak eta koronabirusak ez daukie zerikusi handirik. Dirudianez, koronabirusak ez dira gripearenak bezain erraz aldatzen, baina hata guzti be, beste batzuk baino aldakorragoak izan daitezke. Esan behar da, gizakiok lehendik be 4 koronabirus desbardin sufriduten doguzala, batez be katarrok eta eztula sortzean deuskuezanak, kalte handiegirik egin barik; baina ez dira gripea.

Aurretantzean COVID-19agaz zer gertatuko dan aurreikusiz eretxi desbardinak plazaratu dira azken asteotan, sarritan eretxi guztiz kontrakoak. Zintzotasunez esan behar dogu ez dakigula zer gertatuko dan. Birus barri bat da, eta oindino jakin be ez dakigu ondo zer egiten deusan gorputzari, ez zelan jokatzen dauan, are gitxiago aurrera begira zein bilakaera izango dauan. Batzuen ustez, denpore-agaz "geugaz ohitu" egingo da, eta beraz ez da horren kaltegarria izango —birusari ez jako komeni bere ostalaria hiltzea—. Beste batzuek aldiz dinoe bitartean oindino hainbat "olatu" sufridu beharko doguzala, eta gutariko gehienak pasauko garala bere ostalari izatetik, gripegaz eta beste zenbait gaixogaz gertatzen dan moduan. Eta bide horretan kalte asko egin leike oindino. Beraz, oso erne ibili beharko dogu.

Udagoien honetarako egongo da txertorik? Ez badago, osasun autoridadeen gomendioa urritik aurrera be konfinamentua eta aktibidade guztiak gelditutea izango da barriro?

Ez dot zalantzarik udagoienerako ez bada ahalik eta lasterren aterako dabela zerbaist, sekulako interes ekonomikoak dagoz-eta horren atzean. Presa gehiago izango dabe, seguru, COVID-

19arentzako txertoa bilatzen, lehendik hirugarren munduan hainbeste heriotza sortu dabezan beste gaixoentzat baino. Baina seguruenik COVID-19ak egingo deusku beste erasorik txerto hori guztion esku izan baino lehen. Zenbaterainokoa izango dan? Ikusteko dago hori. Gainera, ez dakigu txertoa lortzean danerako COVID-19a ez ete den zeharo aldatuko, txertoa bera baliobako eginaz.

Hartu zan kontuan konfinamentuak berak sortuko eban hondamendia? Hartuko da kontuan pandemia barriz zabalduen danean?

Hori be ez da nire esparrua, eta beraz, nire eretxiak ez dau askorik balio. Gainera, holangoak "zezena pasata" esatea erraza da beti be. Garbi daukat, ordea, osasuna aurretik jarri behar dala, eta iruditzen jata gobernariak oro har lar uzkur ibili dirala itxialdiak hasteko. Eta horrek seguruenik zaildu egin dau gaitza kontrolatzea. Etorkizunean baleiteke arinago hartzea hartu beharreko ebatziak. Eta holan egin ez bada, behintzat ezingo da ezjakintasuna aitzakiatzat jarri.

Gaixotasunak eta epidemiak ebitezinak dira. Bizitzagaz beragaz datoz. Tratetako moduan baina, honek mugarririk bat suposatu dauala uste dot. Oin, pandemia guztiakaz

ezarriko da konfinamentua? Zein izango erispidea konfinamentua gomendatzeko ala beste neurri batzuk gomendatzeko?

Pandemiak gelditzeko gaitza hedatzea eten behar da, eta horretarako konfinamentua derigorrezkoa da: gehiengoarena, hemen egin dan moduan, edo gaixorik dagozanena bakarrik, Hego Korearrak egin daben moduan, baina horrek sekulako test mordoan egitea —hemen egin ez diranak— eta kontrol handia eskatzen ditu. Bestalde, gaixotasunak eta pandemiak ebitezinak dira, bai, eta beti izan dira gure historian, baina dirudianez sekulan ez atzen 50 urte honeetan bezainbeste. Horregaitik, zientzialariak atzen 25 urteotan "gaitz infektioso emergentez" egiten dogu berba, eta gaiaren inguruan sekulako liburu, aldizkari eta biltzar mordoan egiten dira. Horren errazoiak batez be ingurumenari egiten ari gaitzakozan eraldaketa eta presino bortitzak dira: aldaketa klimatikoa; ekosistemen inbasio, eraldatze eta desagertzea; kutsadurea; larregizko mobikortasuna... zerrendea luzea da. Oindino gehiago, animalietatik datozen birusai jagokienez, azken ikerketak esaten dabe halako "jauziak" askoz errazago gertatzen dirala animaliak estresautan

dagozanen, euren bizilekuak eta bizibaldintzak kaltetzen doguzalako, esaterako.

Beraz, bai, etorkizunean halako gaitzak geroz eta sarriago agertu ahal izango dira, eta batzuk oingo hau baino erasokorragoak be izan daitezke. Baleiteke, beraz, hemendik aurrera gure arteko harremanak aldatu behar izatea, eta gehiagotan be isolamentura jo behar izatea gaitzen hedapena eteteko. Testuinguru honetan, ni gehiago kezkatzen nau gaitz horreek ez sortzeako egin beharko geunkenaz hausnartu eta konponbideak jartzeak, gaitzai aurre egiteko egin beharko dogunak baino. Alegia, hobe dogula jatorrizko arazoak ekiditea, ondorioak konpontzen ibiltea baino. Eta horretarako ingurumena oin baino askoz be gehiago jagon behar dogu, bai ala bai.

Kutsadureak, biodibersidade faltak eta orokorrean, giza-kiak natureari egindako kalteak eragin handia izan dabe pandemia honen neurrian. Eta lar berandu ei da hori konpontzeko...

Ezin dogu onartu berandu danik. Ez da, eta ezin da izan. Ezpabere gureak egin dau. Gure gizartearen funtzionamentua errotik aldatu behar dogu, berandu baino lehen. Ezin dogu geroz eta jente gehiago mantentidu, etenbarik



geroz eta gehiago konsumiduten. Horrek ez dauka etorkizunik. Edozein baseritarrek ondo daki ezin dala solo bakarrean gero eta azienda gehiago sartu, etenbarik, eta azienda horreek egunero gero eta gehiago jatea. Horrek soloa erreko dau, eta azienda hilko jakuz, gaitzak eta goseak jota. Gure planeta da gure solo bakarria, eta ezin dogu beste inondik pentsurik ez galtzurik ekarri.

Ingurumen arazoez berba egiten dogunean beti badirudi urruneko kontuez dihardugula: Antartikako izotza, koralezko arrezifeen gale-rea, basamortuen hedatzea... Bai-

na Euskal Herrian be ingurumen arazo garrantzitsuak daukaguz, eta bertatik hasi behar geunke gauzak konpontzen: galzorian dagozan espezieen egoerea ez doa hobera eta ez dogu ezer egiten haren alde; basabizitzaren azken babeslekua ziran mendiak pistaz eta errepidez beteten doguz, azken bazterretaraino be ibilgailuak eroanez; okerreko baso-ustietak bertako pinudiak kiskaltzea ekarri dau; Zaldibarren azaleratutako hondakinen kudeaketa negargarriak etorkizuna hipotekatzen dau... Etxetik hasi behar dogu mundua konpontzen.

begitu

18 urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik Areatzako Bainuetxean lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Areatza Bainuetxea

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mallez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

BOXEOA

Josu Lopategi: "Boxeoa asaskaldi handiko kirola da, eta hori da bere alderik onena"

Josu Lopategi boxeoa eskolak emon ditu Areatzan, 2019-2020 ikasturtean. Lopategi Bilbon jaio zan, eta 1993tik jentea entrenetan dabil, boxeoa eta kickboxingean. Lopabox taldea sortu eban, Euskadiko taldekako txapelduna izan dana 10 urtez jarraian, eta gizonen euskal selekzinoko entrenatzailea izan da 10 urtez eta andrazkoena 6 urtez. Neskaboa taldeko zuzendari tekniko eta entrenatzailea da.



rri golpeak emon eta hartzeako ideak? Zer emoten dau boxeoa?

Ez da egoten kontakturik jentearen arteko entrenamentuetan. Jentea apuntetan da boxeoko entrenamentua egin daiteken osoenetakoa dalako. Maila fisikoa oso ona da, eta maila mentalean estresa, ansiedadea, depresioa, autoestimu baxua...

daukien personai asko laguntzen deuselako. Asaskaldi handiko kirola da, eta hori da bere alderik onena.

Zelan eragin dau COVID-19ak? Online eskolak emoten jarraitu dozu? Aurrez aurreko itzulerarik izango da ikasturte honetan?

Pandemia honek dana gelditu dau. Ixa Rodriguezek, klubeko

entrenatzaile batek, bideoak egin dauz daukaguzan ikasleentzat. Baina etxetik ez da bardina.

Datorren ikasturtean egongo da eskolarik?

Espero daigun datorren ikasturtea ahalik eta normaltasun handiengan egin ahal izatea, kasu bakoitzean, eskumena daukien agintariak ezarritako neurriak hartuta.

Erredakzioa

Konfinamentuak eten arte, boxeoa eskolak emoten ibili zara Areatzan, ezta? Zelan sortu zan hori?

Areatzan igazko urrian hasi ginan boxeoa eskolak emoten. Asier Garcia alkatea arduratu zan horretaz, eta gugaz ipini zan harremanetan boxeoa herrira erroten hasteko, gure taldeko nesketako baten birtartez. Egia esan, gozamina izan da Areatzan eskolak emotea; batez be, berak eta herriko jentek emondako tratu onagaitik.

Non emoten ziran eskolak? Hau lehen ikasturtea izan da ala lehenik be emon dozue eskolak Areatzan?

Boxeoa eskolak, eskolako patioan emoten hasi ginan, eta neguan udaletxeko espazio batera pasau ginan. Egiten dan lehen ikastaroa izan da, baina ez da azkena izan-

go.

Boxeoa bakarrik irakasten dozu ala kickboxing-a be bai?

Emoten doguzan klaseak boxeokoak dira. Urte askotan emon izan doguz kickboxingeko klaseak be, baina gaur egun boxeokoak bakarrik emoten doguz.

Zenbat ikasle daukazuz? Areatzakoak ala Arratia osokoak? Zein da euren perfila?

Entrenamentuko taldea 20 lagun inguru dira: andrak eta gizonak edade desbardinak eta danak Areatzakoak.

Klaseetan, beroketa orokorra egiten da hasikeran, eta gero boxeoko lan espezifikora pasetan gara. Egiten dogun boxeoa, kontaktu bakoa da, eta, beraz, ez dago golperik entrenetan dauan jentearen artean.

Zergaitik apuntetan da jentea? Ez dirudi oso erakargar-



Areatzako ikastaroko ikasleak.

STIHL
HAZTEKO INDARRA

2020KO UDABARRIKO ESKAINTZAK

NATURAZ MAITEMINDUENTZAT

* 2020ko bagilaren 30era arteko eskaintza balioduna

GARAJE FELIPE

www.garajefelipe.stihl-tienda.es

Garbe, 2 - Igorre

946 736 339

garajefelipe@euskalnet.net

Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta

946 309 039

garajefelipe2@telefonica.net



Xakea online jokatu daiteken kirola da

Beste kiroletan gertatu ez dan bezala, xakearentzat ez da txarra izan itxialdia; izan be, online jokatu daiteken kirol bakarra edo bakerretakoa izango da eta bada horri esker zaletasuna biztu jakona be.



Damian Agirremota, Anatoli Kárpov, Txus Diaz, Iban Gortazar, Leontxo Garcia, Jose Vicente Murgoitio eta Aitor Arza.

Erredakzinoa

Areatzan Xake eskolea eta kluba dagoz. "Eskolea berez ikasleak xakearen gitxieneko ezagutza bat euki eta zaletasuna biztu dagien pentsauta dago. Bizkaiko Foru Al-dundia eta Xake Federazioaren eskutik antolatzen dira eta moni-toreak beren-beregi horretarako prestatuta dagoz. Lehenengo ikas-tarua 20 bat orduko izaten da eta bere bidez xakearen oinarriak eta onurak azaltzen dira" azaldu de-
tso BEGITURI Iban Gortazar Areatzako Xake taldeko lehendakariak.

Kluba barriz, Areatzako zaleak alkar ezetu, euren artean jokatu eta xakea herrian hedatuteko sortu zan. Horretarako jaietan ekitaldi bat antolatu izaten dabe, eta urtean zehar liga bat jokatzen

dabe. "Gero modu puntualean sortu leitekezan ekitaldiak be antolatuten doguz; esaterako igaz, Damian Agirremotaren eskutik, Karpov konbidau genduan gure-ra, eta jardunaldi zoragarria sortu zan, giro izugarria" dino Gortazarrek. Beste klub batzuek eta Bizkaiko Federazioagaz be badaukie hartu-emonan nahiz eta momentuz, ez daben lehiaketa ofizialetan parte hartu.

Milaka jokalar online

Itxialdian, zaletuak gehitu jakoz kirol berezi honeri. Plataforma ugari dagoz xakera jokatzeke (Chess by Post Free, chess.com, Lichess...) eta gehienak debaldekoak dira. Gainera, ordenagailuz bakarrik ez, baita tablet-agaz edo telefonoagaz be jokatu daitezke partidak.

Lehiaketak be antolatu izan dira itxialdian "#checkmatecoronavirus etiketapean ehundaka federazio eta xake talde lehiaketak eta diru bilketak antolatu dabez. Egunero milaka eta milaka jokalarik parte hartzean dabe ekimenean, baita mundu mailako izarrak diranak be. Horretan zorte itzela daukagu; izan be, egunero futbol talderik onenak lehiatuko balira ala pelotaririk onenak batuko balira legez da. Gainera aukera daukagu oin dala ehundaka urteko partidak ikusteko, problemak ebazteko eta abar".

Areatzako xake klubari jagokonean, laster egoera bideratuko danaren esperantza dauka Gortazarrek, izan be gitxi behar dabe jokatu ahal izateko. "Eskolak bueltetea, gatxagoa izango da".

Gugaz
harremanetan
ipinteko

94 631 73 14
eta
649 979 112

begitu

Publizitatea:
649 979 115

✉ begitu@topagunea.com

🌐 www.begitu.org

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net



Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

MUSIKEA

Aneguria: "Errealidade bilakatzen egoan ametsa, pikutara joan da"

Aneguria ezizenez ezaguna da Ane San Miguel rap abeslaria. 2017an Banden Lehia irabazi eta 2018an BBK Liven emon eban kontzertua. Rap musikearen munduan andrak ikusgai egiteko, La Basugaz batera Eskina Femenina izeneko proiektua ipini eban martxan, rap musikari andrazkoak ezagun egiteko. Oin, Emeki emeki emek emana proiektuan dabil lanean, baina COVID-19ak, musikagintzatik biziteko eukan ametsa, eten egin dau.

Erredakzioa

Zergaitik Aneguria?

Raperoak beti ezizenak ditue eta neure kasuan, maitasunez beste persona batek deitzean eustan izena erabiltea ebatzi neban. Bruselako nire lankide batek *anguria* (sandia-watermelon) italiaraz deitzean eustan eta niri berba joko ederra iruditu jatan. Gure Ane - Aneguria jartzea ezizen maitakorra iruditzen jatan eta ez lehiakortasuna edo bildurra sortzean ebana.

Igorren bizi zara? Zer dala-eta aukeratu zenduan biziteko?

Maitasunak eroan ninduan Igorrera eta Igorretik maitasun ezak ateratu ninduan.

Ibilbide musikal luzea eta oso personala daukazu. Pentsetan dot gehienok ezetuten zaitugula rap eta hip-hop feministea egiteagaitik, La Basugaz batera.

Hamazazpi urte neukazanean hasi nintzan rap-a idazten eta Bilbon beste 3 gizonengaz La dolce rima taldea euki neban 5 urtez. Gero Danimarkan bizi nintzala, musika bakarlari moduan jotzen ibili nintzan (euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez). Han konturatu nintzan bakarkako show-ak emoteko gai

nintzala. Behin bisitan etorri nintzanean, amama Pepita gero eta argalago egoala ohartu nintzan eta pentsatu neban nire bizitzan muga ipinten eban bakarria bera zala. Hau da, atzerrian ibilteak, bere atzen hilabeteak edo urtea(k) beragaz ez pasatea esan gura ebala eta bueltetea ebatzi neban.

Bueltan Lapikoklika taldea sortu neban Mikelo Rimasegaz. Lapikoklika beatbox taldea da. Gure lehenengo kontzertua, Sestaoko Txirbilenea gaztetxean izan zan eta han La Basugaz egin neban topo. Hamar bat urte izango ziran ez ne-bala ikusten, eta geu ginan emonaldiko andra bakarrak. Orduan buruan bueltaka neukan proiektu batez egin neutsan berba, gaur egun Eskina Femenina deitzean dana. Berez, andren lanak eta Euskal Herrian nor eta zertan ebilen jakiteko, ikerketa bat alkarlanean egiteko proposamena zan.

Proiektua alkarregaz sortzean, irratia, Youtube kanala, tailerrak, Bazter Fest festibala eta beste batzuk, sortzera eon ginduzan.

Geroago, edo bitartean, La Basuri bere lehenengo euskerazko abestia idazten lagundu neutsan, *Trakamatraka* izenekoa. Baina nire ekintzailetasunak; hau da,

lan desbardin eta ugari eukiteak, eta musika beharrak bide desbardinatetik jarraitzera eroan gaitu. Bere atzenengo diskoa *Gerra* deitzean dala uste dot eta nire proiektua Emeki emeki emek emana. Maitasunean, zainketan eta zoriontasunean oinarritzen da.

Hiru urteko proiektuan murgilduta nabil Aiama artista bermeoz-tarragaz. Bere energia positiboa eta nireak bat eginez, zuzenekoetan, amatasuna, ahiztasuna eta musika industriari autoekoizten diran bakarlari bi bizirauteak dakarzan zainketearen beharrari ekiten deuto. Aiama eta Aneguria, emeki emeki emek emana. **2017an, Azkue Fundazioak antolatutuen dauan Banden Lehia irabazi zenduan eta 2018an BBK Liven kantau zenduan.**

Esaldi bitan: 18 metroko eszenaleku baten Behotsik orkestra sinfonikoagaz partekatzea ebatzi neban. Nire kabuz autobus bat alokatu eta 65 personako talde aparta kudeatu neban.

Momentu honetan ze proiektutan diharduzu?

Lehen aitaturtako Emeki emeki emek emana proiektuan nabil. Aiama eta Aneguria bakarlariak Ene Bada! izeneko hiru urteko biran



lotu gara. Autoekoizpenetik, ahiztasuna erabili dogu amatasunean Euskal Herriko musika industriari jarraituteko. Gure bizipoza eta musika grina partekatzeko gai gara, egunez zein gauez. Hizkuntza desbardinatzen eta familia, *marianito* edota gautxorizontzako. Kakoa, samurtasuna eta surrealismotik beti ahal dan onena egitea da, zuzeneko desbardinak apropos diseinatu.

COVID-19a ez hedatzeko hartutako neurriak eragin itzela izan dabe kulturaren. Zure proiektu konkretuetan eragin dabe? Zelan? Lan aldetik, zelan lango uda aurreikusten dozu?

Dan-dana eten egin jata. Haurdun nago eta espero neban bizimodua, bertan behera parau da. Nire buruaz beste egiteko modukoa, egia esan. Eskerrak errazoi barik egunero energia positiboz kargetan jatala maitasunarako eginda daukadan gorputz hau, baina aurrezkiak euki beharrean kristoren zulo ekonomikoa daukat. Musikagintzatik biziten saiatu naz, eta lortzean nengoan 2019ko azken hilabeteetan, baina errealidade bilakatzen egoan

ametsa pikutara joan da.

Espero dodana, edo hobe esanda, desio bat eskatu ahal badot, kontzertuak, tailerrak, irratia kolaborazioak eta abar ateratea litzateke. Hauxe da nire kontakua: aneguriaakalakieta@gmail.com helbidea eta 615 734 807 telefonoa.

Zelan ikusten dozu etorkizuna sektorean? Modu kolektiboan egoerari aurre egiteko ekimenik abiatuko dabe musikariak?

Bai eta bakarkakoak be bai; dana da posible. Nire kasuan atoi bategaz nenbilen eta nabil bueltaka fm-n sesinoak eta emonaldiak eskaintzen, baina festa kontestu edo aukerak agertu ezean, ezin izango dira beste motako emonaldirik eskaini.

Nire moduko ekintzaile autonomoak jai batzorde edo emonaldi antolatzaileen zuzeneko harremanean oinarritzen da salmenta prozesua. Ezinegon edo ekiteko ezjakintasun handia dago guztian nire eretxian. Dana dala bat nator musika emonaldi handiagoak kudeatzen dituen enpresakaz: #ezgaitzazubertanbeherautzi #nonoscanceles.

Gure ikastetxeak

Gure

ikastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

EUSKEREA

2020-2021 ikasturterako matrikulea zabalik AEKn

Erredakzioa

AEK-k eskaintza berezia egin dau eta datorren ikasturtean euskera ikasten jarraitu edo hasi gura dabena, eskaintza berezia egingo deutse garagarriaren 8a baino lehenago matrikulau ezkerok.

Hau da, %5eko deskontua izan-

go dabe prezioan, ohiko ordainketa epeai beste epe bat gehiago gehituko jako eta ikasleak lehenatasuna izango dau taldeak eratzekoan.

Izen emotea, Igorreko Kubulu Euskaltegian bertan, AEK-ko webgunean edo telefonoz egin daiteke. Euskaltegian eskolak emoten hasi da be AEK daborduko.

PINTUREA

Margolariz beteko dira Zeanuriko inguruak bagilaren 14an

Erredakzioa

Udalak, Zeanuriko Aire Zabaleko II. Margolan Lehiaketean antolatuta dau bagilaren 14rako. Bigarren urtea da eta itxialdiaren ostean, Zeanurik pozik hartuko ditu beste herrietatik etorritako pintoreak, herria kolorez beteko dabena. Lanen gaia, Zeanuri eta bere inguruak izango da eta 500 euroko saria izango dau helduen kategoriako irabazleak.

Beste sari batzuk be egongo dira, publikoaren saria 200 eurokoa, eta 16 urte baino gutxiagoko kategoriako irabazleak 200 euroko balioa daukan material didaktikoa jasoko dau.

Igaz seina partaide egon ziran kategoria bakoitzean eta Ermuako Jon Idigorasek eroan



eban sari nagusia.

Plazako frontoian ikusgai

Goizeko 09:00etatik 10:00etara, aurkeztu beharko dabe euskarrira partaideak, antolatzaileak zigilua ipinteko. Egindako lana 16:00ak baino lehen aurkeztu beharko da plazan. Lanak plazako frontoian ipiniko dira ikusgai eta 17:00etan izango da sari banaketean.

HEZKUNTZA

Etxean erabili ahal izan ditue ludotekako jostailuak behar izan dabezan umeak



Erredakzioa

Dimostenen ekimenez, ludotekako materiala beharizan bereziak daukiezanen eskura ipini dira itxialdian: eskulanak egiteko materialak, jolasak eta herri hezitzailea zer dan azalduten daben liburuak, hain zuzen be. Ludoteka zerbitzua maiatzaren 31n amaitu zan, baina familiaren batek materialen baten eskaria bialdu ezkerok, erantzuna emoten jarraituko dabela azaldu deusie BEGITUri Dimosten alkartetik.

Eskaera kopurua txikia izan bada be, egon diran eskaera guztiak erantzun dira eta umeak etxeetan jaso dabe materiala, segurtasun neurri guztiak bermatuta. "Batzuek bueltau beharreko materiala eskatu dabe (silikona pistola, erremintak, itsasgarria...) eta beste batzuek etxeetan erabili eta bertan geratzeko materialak izan dira (telea, kartulinea, egur zatiak...)" Jostailuak

jagokienean, erabili ostean segurtasun osoz desinfektatu ahal diranak bakarrik itxi ditue. Liburuak barriz, herritar guztiak eskaini deutseez. "Dima, Herri Hezitzailea dala kontuan izanda, momentu aproposa iruditu jakun herritarra gure filosofia ezetuteko aukerea zabaltzea. Izan be, herritar guztiok gara hezitzaile eta zerrendako liburu guztiak "helduentzat" idatzita egon arren, ume eta nerabeen hezkuntzan zentratzen dira".

Materiala umeena da

Ludotekako materiala umeena dala eretxita, Dimosten Herri Hezitzailea alkarteak, itxialdian materiala etxean erabiltea egoki jo dau. "Dimako errealidadean eskaintza honen beharizan handirik aurrekusi ez arren, beharrezkoa iruditu jakun ludotekako materiala Dimako umeen esku ixtea, euren da eta!" dinoe.

EUSKEREA

Kontseiluak Euskerearen aldeko kanpaina abiatu dau



Erredakzioa

Kontseiluaren arabera, COVID-19ak eragindako krisiak eragina izan dau hizkuntza eskubideetan eta eurari lotutako hainbat salaketa jaso ditue. Hori dala-eta, Geroa euskaratik, elkar hartuz, elkar zainduz izeneko kanpaina ipini dau martxan, hizkuntza eskubideak gizarte osoak errespetetako helburuagaz. Eta herritarra eta beste gizarte eragileak dei egiten deutse kanpaineagaz bat egiteko.

Kanpainan parte hartzeako, Zergaitik geroa euskaratik? itaunari erantzuten bideo laburrak bialdu behar dira. Bideoak sareetan zabalduko ditu Kontseiluak. Euskereari lotutako alkarteak eta gizarteko jente ezagunak be hartuko dabe parte kanpainan. Tartean, Topaguneak, UEUK, AEK-k, eta Bertsozale Elkarateak.

Bagilaren 4an, *Euskerea be normalidaderantz?* mahai-inguru antolatuko dau Kontseiluak Martin Ugalde Kultur Foroan.

DUNBA

Zer da gazteontzat itxialdia?

Haizea Elorza eta Xabier Orue JB Eguzkitza Meabeko ikasleak

Azken hilabete honeetan egoera oso latza biziten gabilz, COVID-19a dala eta. Gazteok itxialdi hau modu gogorrean eta zailean bizi dogu, normalean edade honeetan egunak ez doguzalako etxean pasetan. Gure asperdura eta ansiedade mailak igon egin dira.

Lehenengo hilabetea gogorrean izan zan duda barik, aldaketa oso bortitza izan zalako. Desbar-

dintasun nabariena gure ikasketa guztiak etxean egitea izan zan, bat-batean azalpen barik, gure ikasketa guztiak aurrera eroan behar genduzan geuk bakarrik, laguntza minimoagaz. Gainera klaseak emoteko modua guztiz desbardina zan, guztia ordenagailuz, bideokonferentziaz eta azalpen gitxigaz. Honen guztia-eren eraginez, indartsuagoak gara, konturatu garalako geuk bakarrik lan eta erronka guztiak aurrera eroan ahal doguzala.

Hilabete horretan mentalizatu ginan gure familia eta lagunak ezin izango genduzala ikusi denpora tarte handi baten. Gertaera honek tristuraz eta ansiedadez bete ginduzan, gure senideak ez ikusteak ez euskulako grazirik egiten.

Bigarren hilabetea lasaiago biziten gabilz, ohituta gogozalako eta

azken asteetan normalidade apur bat izan dogulako. Etxekoak kalera atera ahal garalako eta azken aste honetan senideak eta lagunak ikusi doguzalako. Nahiz eta ansiedade oindino daukagun, murriztu egin da, oin lasaiago gogozalako. Itxialdi honek bere alde onak be baditu, etxeokaz denpora eta konfiantza gehiago

hartu eta pasau dogulako.

Azken txanpa hau pasetako gomendio batzuk emon gura deusueguz: mundu osoak oin egiten dauan moduan errezetak egitea gomendatzen dogu, etxeokaz denpora gehiago pasau eta berba egin jolasen bitartez, argazkiak eta bideoak bildumak egin oroitzenak oroitze



eta azkenik klasiko bat, mundu guztia-eren lagunik hoberena dana Netflix. Guk serie eta pelikula honek gomendatzen deusueguz, *Riverdale*, *The Society*, *El Guardian invisible*, *Legado en los huesos* eta *Beautiful Lies*.

Azkenik gogoratu distantziak mantentidu behar dirala eta maskarak erabili behar dozuzala. Espero dogu danak osasuntsu egotea eta heldu gogor!! Aupa Arratiako gazteria!!



AGENDEA

**BAGILAK 1
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelohenetatik barikuetara Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

ARRATIA

Bagilaren 8ra arte, haur-eskoletan izena emoteko epea online edo aurrez aurre.

2020-2021 ikasturterako Igorreko AEK-ko Kubulu Euskalategian matrikula egiteko epea zabalik. Garagarrilaren 8a baino lehenago egin ezker deskontua eta beste bentaja batzuk. Telefonoa: 94 631 56 57.

Gernikako KZguneko 94 403 33 58 telefonora deituta, edozein zalantza argitu edo zezoz konsultatu daiteke.

eLiburutegia erabilteko liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus helbidean sarbide kakoa emongo deuteskatzen dauanari egoera normalizatu arte. eLiburutegian persona bakotzak hilean lau liburu irakurteko eta astero film bi ikusteko aukera dauka. Maileguan hartu daitezke liburuak, eskaera posta elektronikoz eginda liburutegia@bedia.biz helbidean (Bedian).

Arratiako herrietako bake epaitegiak hartu-emonetan ipinteko, juzgadodeareatza@gmail.com-era idatzi edo 94 631 57 99 telefonora deitu.



2007 eta 2015 urteen artean jaiotako neska bazara eta futbolean

olgetan hasi gura badozu. Deitu 617 803 440 telefonora edo mezua bialdu cdarratia@cdarratia.com helbidera.

AREATZA

Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukera. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Areatza taldean. Kakoa: 8AC59E. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/FP5tLb9Hj6>. Herriko dendetan erosteko bonoa izango da saria irabazlearentzat eta beste bono bat zozketatuko da parte hartzaileen artean. Parte hartzeako Areatzan erroldatuta egon behar da.

BEDIA

10:30etik 13:30era, astelohenetatik barikuetara Udal Liburutegia zabalik egongo da.

DIMA

Udalekuak 2020. Izen emote barria kultura.dima@bizkaia.org helbidean hilaren 15era arte. Gazte abentura, 2002 eta 2007 urteen artean jaiotakoak bagilaren 29tik garagarrilaren 3ra;

Udaleku itxiak, 2012 eta 2015 urteen artean jaiotakoak garagarrilaren 6tik 10era; Udaleku itxiak, 2007 eta 2011 urteen artean jaiotakoak garagarrilaren 13tik 17ra. Oharra: aurreko izen emoteak ez dau balio. Prezioa asteko 40 euro, neba-arrebak 30 euro.

Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukera. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Dimoztarrok eurt! euskerara taldean. Kakoa: D645B6. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/1EmVy1w05>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Diman erroldatuta egon behar da. Abizarietako antolatuta.

IGORRE

Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukera. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Igorreko herria taldean. Kakoa: FA6C33. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/qrsd1GKY5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Igorren erroldatuta egon behar da.

LEMOA

10:00etan eta 18:00etan, astelohenetik barikura, Gimnasioa kalean, gimnasiako saioak monitoreak Udalak antolatuta. Izena 94 631 42 97 telefonon eman 10:00etatik 14:00etara.

10:00etatik 14:00etara, martitzen eta eguaztenetan eta eguenetan 16:00etatik 20:00etara, Liburutegiko mailegu zerbitzua. Liburuak hartu eta itzuli liburutegiaren sarreran eguenetako ordutegian. Liburu eskatzeko deitu 94 631 20 64 telefonora zerbitzu ordutegian edo bialdu mezua bat eskaereagaz liburutegia@lemoa.net helbidera. Katalogoa www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

webgunean ikusi daiteke.



Garagarrilera arte, Egunean behin lehiaketan parte hartzeako aukera. Deskargau Egunean behin aplikazioa; sartu Lemoako herria taldean. Kakoa: 204F9E. Esteka: <https://eguneanbehin.app.link/1KH1d9SW5>. Denporaldia amaitutakoan saria egongo da lehenengo hirurentzat. Parte hartzeako Lemoan erroldatuta egon behar da.

Eguaztenetan, 10:00etatik 14:00etara, Udalak Oingabiz: ariketa fisikoa eta bizitza osasungarria sustatzeko programea eskaintzen jarraituten dau modu telematikoa.

Hitzordua, WhatsApp bidez hartu behar da 678 064 892 zenbakian.

ZEBERIO

Urri bigarrenaren 31ra arte, herriko inguru eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezke udala.zeberio@bizkaia.org helbidera 2021eko egutegia osotutako Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ez panoramikoak.

**BAGILAK 4
ARRATIA**

18:00etan, AEK-k antolatuta, IV. Kahoot Lehiaketa eta online solasaldia *Nola aurreikusten duzu aurtengo uda?* <https://meet.jit.si/solasaldia> helbidean.

**BAGILAK 6
LEMOA**

17:00etan, Didau Antzerki Faktoriaren antzerki saioa *Tunba, orro egiten besterik ez zekien lehoia*, umeentzako antzerki saioa. Lemoako Udalen Plataforma digitalean.

**BAGILAK 14
ZEANURI**

09:00etatik 17:00etara, Zeanuriko Aire Zabaleko II. Margolan Lehiaketa.

NORMALTASUNERA ITZULI DA HONDAKIN ORGANIKO ETA HANDIEN BILKETA**ARRATIAKO UDALEN
MANKOMUNITATEA****BOLUMEN
HANDIKO
HONDAKINEN
DOAKO BILKETA
ZERBITZUA**Kalean utzi **AURRETIK**
dei iezaguzu**94 631 17 17**

Gainera, Igorreko Garbigunera eramateko aukera duzu - 94 631 52 91

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalga, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak. Deitu 657 777 542 zenbakira.

DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazino onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiltz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkerro, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Anima! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, zaparradabatukada@gmail.com emaillean, Instagramen [@zaparrada_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

Aiko taldearen disko bana.



Jose Luis Kortabitarte (Arantzazu)
Itziar Etxezarraga (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umean medu
sem
@-IG
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

Kepa Intxausti
TAXI ZERBI ITZIA
609421222
IGORRE

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejatzetxe@hotmail.com

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Guzt hurremanetan ginetako 94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizitatea: 649 979 115
begitu
begitu@topagunea.com www.begitu.org

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu Bizkaia egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Apunta Zaituz!

☎ 94 673 91 16



atara zure talentoa

LAN-MUNDUA

Goi Mailako Zikloak	Fabrikazio mekanikoko diseinua Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
Erdi Mailako Zikloak	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta Instalazio elektrikoak eta automatikoak  Mekanizazioa
Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak	Instalazio eletroteknikoak eta mekanikoak  Elementu metalikoen fabrikazioa 



Aurrematrikula 2020-2021

Ekainaren 1etik-19ra

☎ 688 76 33 60

✉ orientazioa@zulaibar.org



Zulaibar Auzoa 17
48144 Zeanuri (BIZKAIA)
Tel. 94 673 91 16
www.zulaibar.org

ZERGAITIK L.H.?

ZERGAITIK ZULAIBAR?

%89

LANERATZEA

Gure heziketa zikloetan %89 baino gehiagoko tituludunak lanean hasita

IKASI + LAN EGIN

FORMAKUNTZA DUALA

Formakuntza Dualean ikasle kopuru handia ikasi + lan - kontratua

**2019
2020
2021**

KONTRATAZIO BEHARRIZANA

Enpresen kontratazio beharrizanak datozen urteetarako

